

HAUR POESIA DRAMATIZATZEKO AUKERA BAT: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Ander Vergara Mendizabal

Zuzendaria: Edu Zelaieta Anta

2018-2019 Ikasturtea

LABURPENA:

Gratu Amaierako Lan (GrAL) hau Haur Poesiaren inguruan eta Haur Poesiaren dramatizazioaren ingurukoa da. Izan ere, poesia eta dramatizazioa elkarloturik lantzea garrantzitsua da Haur Hezkuntzan hainbat eduki eta gaitasun eskuratzeko: gorputz adierazpena, hizkuntza, musikaltasuna, erritmoa, etab, uneoro jolasa baliabide nagusitzat hartuz. GrAL hau aurrera eramateko Haur Hezkuntzan 4 eta 5 urteko hurrekin egingo dut, hurrek poesiaren inguruan dituzten jakintza ezberdinak ikusteko aukera egokia delako. Lan hau egiteko, Zurriola Ikastolan egindako praktikak eta San Ignazio Ikastetxean baimen esplizituaz egindako esku-hartze pedagogikoa baliatu izan ditut. Arestiko bi esperientzien ondorioz, poesiaren eta dramatizazioaren inguruko proposamen didaktikoa sortzea erabaki dut. Haur Hezkuntzako profesionalentzat baliabide interesgarria izan daitekeelakoan.

Gako-hitzak: poesia, dramatizazioa, Haur Hezkuntza, ahozkotasuna, jolasa, jolas dramatizatua.

RESUMEN:

Este Trabajo de Fin de Grado (TFG) trata sobre la poesía infantil y la dramatización de la poesía infantil. Trabajar conjuntamente la poesía y la dramatización es importante en Educación Infantil para el desarrollo de diversos contenidos: expresión corporal, el lenguaje, la musicalidad, el ritmo, etc. y en todo momento teniendo el juego como principal recurso. Para llevar a cabo este TFG lo hare con niños de 4 y 5 años de Educación Infantil para saber cuáles son los conocimientos de cada niño a cerca de la poesía. Durante las prácticas echas en la Zurriola Ikastola y gracias a la intervención explicita echa en San Ignazio Ikastetxea he tenido la ocasión de ponerlo en práctica. Gracias al resultado de las dos anteriores experiencias, he decidido crear una

propuesta didáctica a cerca de la poesía y la dramatización pensando en que será útil para los profesionales de Educación Infantil.

Palabras-clave: Poesia, dramatizacion, Educación Infantil, comunicacion oral, juego, juego dramatico.

ABSTRACT:

This Final Degree Paper (TFG) is about children's poetry and the dramatization of children's poetry. Working together with poetry and drama is important in Infant Education for the development of various contents: body expression, language, musicality, rhythm, etc. and at all time with the game as the main resource. To carry out this TFG I will do it with children of 4 and 5 years of Infant Education to know what are the knowledge of each child about poetry. During the internship at the Zurriola Ikastola and thanks to the explicit intervention in San Ignazio Ikastetxea I had the opportunity to put it into a practice. Thanks to the result of the two previous experiences, I have decided to create a didactic proposal about poetry and drama, thinking that it will be useful for the professionals of Infant Education.

Key-words: Poetry, dramatization, Early Childhood Education, oral communication, play, dramatic play.

AURKIBIDEA:

1.	SARRERA	5
2.	JUSTIFIKAZIOA.....	6
3.	MARKO TEORIKOA:	8
3.1.	Dramatizazioa	8
3.2.	Poesia.....	11
3.2.1.	Haur Poesia.....	12
3.2.1.1.	Haur Poesia eta Jolasa.....	14
3.3.	Ahokotasuna	15
3.4.	Curriculumaren azterketa	16
4.	HELBURUAK	18
5.	POESIA DRAMATIZATZEN: ANIMALIEN MUNDUAN	19
5.1.	DESKRIBAPENA.....	19
5.2.	JARDUERAK AZALTZEN	20
5.2.1.	1. Jarduera: Poesiaren ezaugarriak azaltzen.....	21
5.2.2.	2. Jarduera: poesiako pertsonaiak asmatzen	22
5.2.3.	3. Jarduera: poesia irakurtzen	22
5.2.4.	4. Jarduera: pertsonaiak margotzen	23
5.2.5.	5. Jarduera: haurrak poesiako protagonistak.....	24
5.2.6.	6. Jarduera: poesia dramatizatzen.....	24
5.2.7.	7. Jarduera: poesia besteei dramatizatzen.....	25
5.2.8.	8. Jarduera: poesia dramatizatzeko antzeztokia prestatzen.....	26
5.2.9.	9. Jarduera: poesia antzeztokian dramatizatzen	26
5.2.10.	10. Jarduera: poesia gurasoei erakusten	27
5.3.	ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	28
5.4.	GrAL-aren BALORAZIO PERTSONALA	30
6.	ERREFERENTZIAK:.....	32

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ERANSKINAK

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan (GrAL) honek poesia eta dramatizazioak elkarren artean izan dezaketen erlazioa azaltzea du helburu. Izan ere, poesiak aukera anitzak ematen ditu dramatizatzeko, hau da, poesiaren bidez haurrek dramatizazioan dituzten abileziak garatzeko aukera paregabea ematen duelako.

GrAL hau aurrera eramateko, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako 4.mailan, 5 urteko hurrekin egindako praktikaldiak erabili ditut, aukera egokia baita haurrek poesiaren inguruan dituzten jakintzak zeintzuk diren ikusteko. Horrez gain, proposamen didaktikoa sortzeko, hasierako jarduerak osatzeko asmoz, San Ignazio ikastetxean 4 urteko hurrekin egindako beste 5 jarduerari esker proposamen egokia garatzeko aukera izan dut.

Esan beharra daukat, Haur Hezkuntzako 4.mailako dramatizazio minorreko ikaslea izanik, haurren eskura jarri ditudala dramatizazioko minorrean jaso ditudan jakintza guztiak. Dramatizazio minorrean izandako gaiiei esker, gorputz adierazpena, hizkuntza plastikoa eta ikusizkoa, dramatizazio adierazpenerako informazio eta komunikazio teknologiak, adierazpen eta komunikazio trebetasunak eta musika hizkuntzari esker eta bertan landutako edukiak laguntza hartuz, poesia eta dramatizazioaren uztarpena eginez lan polit eta Haur Hezkuntzan aplikagarria izan daitekeen GrAL-a sortzeko aukera dagoela.

Lanari hasiera emateko, lehenik eta behin, gaiaren inguruko justifikazio pedagogikoa dago. Justifikazioaren ondoren marko teorikoa dago eta bertan dramatizazioaren, poesiaren, haur poesiaren, ahozkoitasunaren eta curriculumak zer dioenaren berri ematen da. Jarraitzeko, lanarekin lortu nahi ditudan helburuen berri ematen da eta, ondoren, nik proposatutako proposamen didaktikoaren inguruan pentsatutako jarduerak daude. Ondoren,

behin jarduerak burututa ateratako ondorioak eta, azkenik, GrAL-aren inguruan egindako balorazio pertsonala.

2. JUSTIFIKAZIOA

Armando Lopez, Isabel Jerez eta Ernesto Encaboren (2010) hitzak gogora ekarriz, haurra eskolara iristerakoan, poesiak uneoro lagundu egin behar du. Poesiaren bidez, haurrak erritmo eta musikaltasunaren zentzua hartzen du, hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duelako.

Abesti, ipuin edo poesiarik gabe hezitako haurrak espiritualki abesti poesia edo ipuinekin hezi diren haurrak baino txiroagoak dira. Horregatik, garrantzitsua da haurrak txikiak direnetik poesia, abesti edo ipuinak haurrak sehaskan daudenetik irakastea (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010).

Poesiak Haur Hezkuntzan duen arerio nagusia begiratzen zaion arrazionaltasuna da, hau da, irakasleek poesia ulertzen, azaltzen, menperatzen saiatzea da eta ez uztea poesiak berak gu menperatzen. Hori da, hezkuntza mailan, eta batez ere, Haur Hezkuntzan poesia alde batera uzteko arrazoi nagusia (Garralon, 1992).

Jose Hierro poetagileak esandako hitz hauek ekarriko ditugu gogora (Galarronek aipatua, 1992, 36.or):

Cuando se habla de que en España no se hace caso de la poesía, es cierto para la lírica. La poesía dramática ha tenido mejor suerte. El problema, quizá resida en que a los niños no se les enseña a leer poesía; entienden la trama, pero no aprenden a oír la auténtica música de la poesía.

Poesiaren bidez, haurrak hizkuntza lantzeaz gain haur bakoitzaren barne mundua, pentsamenduak eta usteak ezagutzeko aukera eskaintzen du (Heriz, 2017).

Dramatizazioa Haur Hezkuntzan lantzea baliagarria da ikasleen ahozko zein idatzizko adierazpenak hobetzeko asmoz erabili baitaiteke, haien errealitatearen kontzientzia hartzen lagunduz, haien errealitatearen eta munduaren arteko erlazioa ulertzen lagunduz eta balio zein trebetasun sozialak sustatuz (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Dramatizazioa Haur Hezkuntzan jolasetik hasi behar den gauza da. Haur Hezkuntzako etapan garrantzitsua da jolas sinbolikoa baliabide moduan hartzea, imitazio eta elementu ezberdinei esanahi bat ematen dietelako hurrek. Etapa honetan haurrak rolak ezartzerako unean desinhibitze prozesu batean murgilduta daude, hori dela eta, garrantzitsua da dramatizazioa eta gorputz adierazpena lantzea. Horregatik, gorputz adierazpenaren alorrean dramatizazioari esker haurraren garapen integralean modu ludiko eta sortzaile batean lantzeko aukera ematen du (Gonzalez, 2015).

Dramatizazioa hezkuntza oso tresna baliagarria da hurrekin lantzeko, haurrak ezagutzeko aukera eskaintzen baitu. Haurrari libreki adierazteko aukera eskaintzen badiogu, eurek gauzak nola ikusten dituzten, nola pentsatzen duten eta nola arrazoitzen duten ikusteko aukera izango dugu (Ramirez, 2009).

Maria Esperanza Delgadok (2011) dioen moduan dramatizazioa Haur Hezkuntzan ikaskuntza nahitasuna du, azken finean haurraren garapenerako ezinbestekoa delako hurrek jolasaren bidez mundua ezagutzeko eta arakatzeko aukera eskaintzen baitu, jolasa ikasteko tresna baliagarria den moduan.

3. MARKO TEORIKOA:

3.1. Dramatizazioa

Haur Hezkuntzako dramatizazio kontzeptua ondo islatzeko, (Delgado, 2011; Lacárcel, 2011; Motos, 1983; Reina, 2009; Slade, 1978 eta Tejerina 1994) diotena kontuan hartu dugu. Modu honetan, Haur Hezkuntzako dramatizazioa komunikatzeko erreminta da, non umeek beraien sentimendu eta emozioak adierazten dituzten eta jarrera ezberdinak imitatzen dituzten. Imitatzeko ahalmen hau jaiotzatik dakar umeak; beraz, umea jaiotzen denetik antzezten du; baita adierazi ere.

Dramatizazioa zer den jakiteko hainbat definizio irakurri ahal ditugu literatura zientifikoan. Tejerinarentzat (1999), Vizcarrak (2014, 129.or) idatzitako *Gorputz adierazpena lehen hezkuntzan* izeneko liburuan, helduek galtzen duten haurren, gaitasun adierazkorra da dramatizazioa. Horretaz gain, autore honentzat, dramatizazioa eta antzerkigintza ez dira gauza bera, antzerkigintzaren xedea antzeztan bat sortzea eta publiko baten haurrean erakustea da; dramatizazioan, aldiz, helburu nagusiak antzez tekniken inguruan ikertzea eta sormena lantzea dira. Hau da, antzerkigintzan errepikapena erabiltzen da teknika moduan eta dramatizazioan bat-bateko jarduna da gehien baloratzen den ekintza.

Valinen (2010) arabera, dramatizazioa egoera, istorio edota- ekintza erreal edo alegiazko baten errepresentazioa edo irudikapena da. Hori sakonago aztertuz gero, adierazpen eta komunikazio modu bat dela ikusiko dugu, non bakoitzak bere burua eta ingurune sozial, zein kulturala hobeto ulertzeko erabilgarria den (Aranguren, Galbete, Goyache eta Pascual, 1996).

Esan dugun bezala, garrantzitsua da dramatizazioa Haur Hezkuntzan lantzea, baina ez etorkizunerako aktore profesionalak izateko, baizik eta haur bakoitzak bere burua aurkitzeko, ezagutzeko, bakoitzaren sormena garatzeko eta komunikazioan lantzeko (Aranguren, Galbete, Goyache eta Pascual, 1996).

Adierazpen dramatikoari esker, hurrek gaitasun sozialak garatzen dituzte; irudimenari, sormenari, autonomiari eta sentsibilitateari espazioa utziz. Dramatizazioak hurren esperientzia bilatzen du, izan ere, prozesuan interesa jartzen du eta hurrek irudikatutako egoerak sortzen dira. Dramatizazioko testuak eta ekintzak bat-batean egindakoak dira, pertsonaiak aukeratu eta sortu egiten dira, edozein lekutan egin daitezke eta eszenografia hurrek asmatutakoak dira.

Dramatizazioa hezkuntza baliabidetzat hartzen baldin badugu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eredu motibatzaile bat izango da, eta ikasleek modu ludiko batean landuko dute alderdi psikologikoa, emozionala, soziala eta sormena (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Dramatizazioa, hezkuntza tresna moduan ulertu daiteke, Curriculumaren garapena ahalbidetzen duena. Gainera, gaitasun sozialetan trebatzeko eta balioak lantzeko oso erabilgarria da. Cerverak (1982) dioen bezala, (Tejerinak aipatua (1994), dramatizazioa prozesu mentala da; akzio bat sortzea, errepikapen baten bidez, hau da, akzioaren erreprodukzioa. Bertan eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun baliabideak erabiliko ditugu: adierazpen linguistikoa, gorputz adierazpena, adierazpen plastikoa eta adierazpen musikala.

Dramatizazioa tresna baliagarria da Curriculumean dauden zenbait eremu garatzeko, aukera ematen baitu adierazpen linguistiko, gorputz-adierazpena, adierazpen-plastikoa eta musika-erritmo-adierazpena, eskolan adierazpen hauek elkarrekin ez baitira lantzen (Llamazares eta Selfa, 2016).

Era berean, dramatizazioa komunikazio ekintza bat da eta horren bidez talde batek errealitate jakin bat partekatzen du espazio eta denbora jakin batean. Dramatizazioa esperimentazio jolas eta ekintzen multzo bat da, adierazpen askatasuna, lengoia desberdinak eta sormena garatzea bilatzen duena. Ondorioz, oso garrantzitsua izango da artea eta kultura umeen hezkuntza prozesuaren eta esperientziaren oinarria izatea (Vizcarra et al., 2014) beren lanean adierazten duten bezala.

Dramatizazioaren oinarria jolas dramatizatua da. Hurrek dramatizazioaren bidez eguneroko ekintzak antzezten dituzte eta horretarako errealitatea aldatzen dute. Horren ondorioz, lotsa, konplexuak, emozioak, sentimenduak etab. askatzen dituzte eta haien buruetan konfiantza berreskuratzen dute (Vizcarra, 2014).

Sladeren (1978:54) hitzak gogora ekarriz (Perez Gutierrezek (2004, 73.or) bere lanean aipatua)

El juego (“el modo que tiene el niño de pensar, probar, relajarse, trabajar, recordar, competir, investigar, crear y ensimismarse”) es la raíz de la expresión dramática infantil. El niño descubre experiencias a través de los juegos de acuerdo con su capacidad para asimilarlos en cada momento.

Dramatizazioa konstruktibismo, interakzionismo eta deskubrimendu bidezko ikaskuntzarekin erlazionatu dezakegu. Hori dela eta, irakasleek errekurtso dramatikoak ezagutu behar dituzte haurrengan sormena, konfiantza eta auto-estimua bultzatzeko (Argüelles eta Zelaieta, 2015).

Lehen adierazi dugun bezala, dramatizatzeak ikasleengan onura asko sortzen ditu. Batetik, ikasleen ahozko adierazpena hobetzeko tresna baliagarria da, emozio eta barne sentimenduak adieraztea eskatzen duelako adierazpen komunikatibo edo artistiko desberdinak erabiliz. Bestetik, haurra inguratzen duen munduaz eta errealitateaz ohartzeko eta ulertzeko bidea errazten du. Gainera, dramatizazioan parte hartzen dutenek fisikoki, psikologikoki eta emozionalki egiten dute. Hortaz, ekintza konplexua da, non pertsonaren funtsezko atalek parte hartzen duten (Argüelles eta Zelaieta, 2015; Nuñez eta Navarro, 2007).

Horregatik, ez da indarrez inposatu behar, baizik eta iradoki, askatasun eta konfiantza giroa sortuz, eta umeek ezarritako arau batzuk izan behar ditu hauek bete ditzaten. Beste bizitza batzuk bizitzeko aukera emango du,

bakoitzaren atalak islatzeko aukera edo bakoitzak bere burua beste rol baten ikusteko aukera (Delgado, 2011).

3.2. Poesia

Euskaltzaindiaren (2019) hitzak gogoratu, poesiak sorkuntza, asmakizuna eta fikzioa du esanahi modura. Oso zaila da poesiaren definizio zehatz bat ematea, azken finean, poesia sorkuntza delako, sorkuntza horretan irudimenak berebiziko garrantzia baitu. Aldiz, Ferreirok (2012) poesia hitz, errima eta esaldi bat baino gehiago da. Poesia bihotza hitzetan jartzea da. Beraz, poesia sentimenduak adierazteko eta bizitza ulertzeko modu bat da. Beraz bi aipu hauek kontuan izanda esan daiteke poesia literatur mota dela, zeina hitza baliabide hartuz, gizakiak edertasunaren, maitasunaren, bizitzaren edo heriotzaren inguruan bere sentimendu, emozio edo hausnarketak adierazten dituen.

Elena Medelek (2018) poesiaren inguruan egindako bi aipu gogora ekarri nahi ditut:

En esto consiste la poesía. Alguien que escribe un poema y logra que otra persona -en otro sitio, quizá también en otro tiempo, con una existencia muy distinta- se identifique **eta** La poesía es más que un género literario, es un lenguaje en un poema, pero está también presente en otras disciplinas, porque es el origen de todas las escrituras y de todas las artes.

“El País” egunkarian Espainiako 8 poetari poesia zer den galdetuta eta honako hau erantzun zuten. Antonio Colinas-ek:

La poesía es para mí una manera de ser y de estar en el mundo, pero además una profunda vía de conocimiento. No es posible un mundo sin poesía, porque el día que esta desapareciera significaría que el ser humano es otra cosa que humano. La poesía es un sentir y un pensar esenciales, en los límites, a contracorriente casi siempre del tiempo en el mundo que se escribe. De ahí que sea también un revulsivo poderoso en un mundo que tiende al vacío y a la ausencia de sentimiento (Huerta, 2012).

Cristina Peri Rossi-ren iritziz honako hau da poesia:

Para mí cumple dos funciones: primero, es la memoria de las emociones y de los sentimientos. Nos da la identidad contra el olvido. La segunda función es la de espejo, es el otro lado del espejo de lo real: abre las puertas para acceder a esa zona de lo íntimo a la que la novela no llega, porque cuenta hechos. A la poesía le basta con expresarlos (Huerta, 2012).

Elena Medel-en ustetan berriz:

Llevo intentando explicármelo toda la vida. Para mí la poesía es una pastilla que cura la enfermedad o atenúa el dolor. También es un diccionario que a mí, personalmente, me explica el mundo. Tiene que ver con todo lo terrenal. En estos malos tiempos, pienso que la poesía es un buen antídoto contra todos los males que nos rondan (Huerta, 2012).

Cerverak (1990:121) aipatzen duen moduan Llamazares eta Selfak (2016) berreskuratua, Cerverak bidea ireki zuen haurrak poesiarekin zuen lehenengo topaketan jolas dramatikoarekin, hau da, literaturaren funtzio estetikoarekin erlazioa zuena, alegia. Baina, poesia testu guztiak ez dira egokiak dramatizatzeke, edo ez, behintzat, maila berean.

Garrantzitsua da aldarrikatzea testu dramatiko eta poetikoek ematen dituzten aukerak, izan ere, esperimentazioa, ezagupena eta hitzekin egin daitezkeen lanketa anitzak lantzeko aukera ematen baitu (Llamazares eta Selfa, 2016).

Poesien dramatizazioak ahozotasunean zalantzarik gabeko onurak dakartza umea igorlearen ikastuna bilakatzen baita, eta honek baldintzatu egiten du edukia eta mezuak helarazteko forma (Llamazares eta Selfa, 2016).

3.2.1. Haur Poesia

Haur poesia entretenimendua baino zerbait gehiago dela esan daiteke, azken finean, errekurtsu hezigarria da garapen emozionala, kognitiboa eta komunikatiboa estimulatzeko dituen heinean. Ikusi izan da poeziaren gozatzen

duten haurrek aukera gehiago dutela gaitasun linguistiko zein kognitiboak lantzeko eta gauzak espresatzerako unean gaitasun handiagoa dutela (Etapas Infantil, 2019).

Haurrari poesia berez gustatzen zaio, hizkuntza ikasteko beste tresna bat delako. Horrez gain, hizkuntzaren ikaskuntza hori jolas moduan erakusten bazaio haurrarentzat lagungarriagoa izango da gauza asko ikasteko tresna izango baita. Gainera, lan asko egin gabe jabetu daiteke poesiaren osotasunaz. Poesiak daukan erritmoa lagungarria zaio memoria lantzeko aukera sortarazten baitio (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010). Poesiaren bidez, haurrak gauza asko ikasteko aukera du, hala nola, hizkuntza, lexikoa, literatura, errima, musikaltasuna, etab.

Poesia bilatu eta aurkitzen da. Garrantzitsua da poesia aurkitzea eta poesia sentitzea. Erabilgarri ditugun baliabide guztiak egokiak dira poesia aurkitzeko eta idazteko (Lopez, Jerez eta Encabo, 2010).

Poesia guztiz ezagutu ahal izateko ez da bakarrik soinuek markatzen duten bidea jarraitu behar, irudiek ere laguntza handia ematen baitute. Irudi hauen bitartez haurrak etengabe zehazten, aztertzen eta bere paradigmatikak sortzen ditu (Heriz, 2016).

Haurraren munduan nahitaezko elementua da poesia; batez ere, herri poesia, belaunaldi batetik bestera ahoz aho pasa dena. Ahoz ahoko poesia horrek haurra literaturaren mundura itzultzen du. Lo-kantak, esaerak, zotz egiteko teknika, etabarren bidez haurra literatura hizkerarekin harremanetan jartzen da (Arnal, 2017).

Haurrarentzat idatzitako poema liburuetan oso lan lirikoak aurki ditzakegu, jolaserako eta entretenimendurako aproposak direnak. Horregatik, eskolak hurbilketa honetan lagundu egin behar du. Esaerak, jolasak, igarkizunak, kanta eta antzeko elementuen bidez, poetikotasunera eta hitzaren erabilera estetikora hurbiltzen lagundu behar dugu haurra. Horrela haurrak aukera baitu hizkuntzak duen erabilera anitzak ezagutzeko (Arnal, 2017).

3.2.1.1. Haur Poesia eta Jolasa

Jakina da Haur Hezkuntzan haurrek jolasaren bidez asko ikasten dutela. Beraz, umeeekin lan egitean, jolasa tresnarik oinarrizkoena izango da, eta, beraz, jolasak haurtzaroaren etapan suposatzen duena kontuan izan behar dugu hezitzaile garen moduan (Heriz, 2017).

Jolasa haurrek mundua ezagutzeko duten baliabidea nagusietako bat da. Haurren garapenean eta norberaren eraikuntzan berebiziko garrantzia du. Izan ere, jolasaren bidez, haurrak aukera du bere burua eta inguru fisikoa, zein soziala ezagutzeko. Horretaz gain, jolasa umearen autonomia mailarik gorena erakusteko ekintza da eta plazer iturri izateaz gain, oso serioa da (Hik Hasi, 2013).

Aurreko baieztapena indartzeko Maria Esperanza Delgadoren (2011, 384.or) hitz hauek ekarri nahi ditut gogora:

Tenemos que tener muy claro que jugar significa comunicarse, compartir con otros es inherente a la condición humana, más aún en la etapa infantil, el juego de roles es uno de los medios fundamentales para la socialización, jugar a las madres, a las tiendas, a los policías..., por lo cual la dramatización en Educación Infantil es fundamental.

Jolasa jarduera atsegingarria da haurarentzat, espontanea, borondatezkoa eta askatasun osoz aukeratua izan delako, azken batean, haurrak jolasterako unean nahi duen jolasa egin behar baitu. Gainera, jolasa ez da sortzen emaitza bat lortzeko, horregatik haurrak ez dio beldurrik izango porrotari (Heriz, 2016).

Abad-en (2008) arabera, jolasa adimena garatzeko eta erabiltzeko era bat izateaz gain, haurrak jolasten duen bitartean bere gaitasunak kolokan jarriko dituen ikaskuntza ingurunea da, baita pentsamendua, lengoaiak eta irudimena uztartzekoa ere.

Argi geratzen da beraz, poesia ikasteko modurik egokiena jolasaren bidezkoa dela. Hori horrela, poesia, dramatizazioa eta jolasa Haur Hezkuntzako

etapan zehar oso lotuak egongo dira. Horregatik, poesiak jolas dramatikoaren antzekotasuna duela esaten da. Dramatizatzerako unean erabiltzen den gorputz adierazpenak esanahia azpimarratzen, zabaltzen eta ordezkatzeko dute (Heriz, 2017).

3.3. Ahozketasuna

Ahozketasuna lantzeak hizkuntza erabilera zuzenarekin erlazioa duten hainbat alderdi aintzat hartzea, lantzea eta garatzea dakar berekin. Jakina da hizkuntza erabiliz ikasten dela, eta erabiliz hobetzen da ahozko komunikazioa. Ahozketasuna erabiltzea hizkuntzaren erabilera sustatzea da, eta, beraz, komunikazioa eta ahozketasuna lantzea dela esan daiteke (Amonarriz, Erramun eta Arruti, 2004).

Haur Hezkuntzan ahozketasuna lantzerakoan askotan nahi duguna da haurrak erantzun zehatza ematea. Haur bakoitzak esan behar duen hori modu batean ulertzen du eta nahiz eta guk nahi dugun moduan ez esan horrek ez du esan nahi haur horrek gaizki esan duenik. Azken finean, guk buruan dugun hori haurrak esatea nahi badugu, haurrari ez diogu onurarik ematen, ez diogulako lagunduko (Gonzalez, Labrador eta Sancho, 2013).

Juan Kruz Igerabidek (2007) dioenez, ahozketasuna oratoriaren alderditik lantzen da, dotore eta modu zehatzean hitz egiteko ahalmena landu nahi baita; azken finean, gizartean dauden beharrei erantzuteko baliabideak haurrari eskaini behar baitaizkio.

Haurrarekin ahozketasuna lantzea haurraren hizkuntza indar poetikoz betetzea da. Hizketan baino zerbait gehiago ikasi behar du haurrak; egoera komunikatibo bati egoki erantzuten ikasi (Igerabide, 2007).

Haur hezkuntzan ahozketasuna objektu bezala landu behar da. Horrez gain, ahozketasuna eskolan bitartekari bihurtzen da, hau da, ahozko hizkuntza

ezinbestekoa dela ikasteko, aldamiatzeko, esanahia negoziatzeko, etab (Hikhasi, 2009).

3.4. Curriculumaren azterketa

Gradu Amaierako Lan honetan poesia eta dramatizazioa elkarren artean lotuta egoteak eta EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politikak eta Kultura sailak (2015) Haur Hezkuntzari zuzenduta dagoen curriculumeko zenbat gaitasun eta eduki garatzea eskatzen du. Batetik, norberaren nortasunaren eraikuntzan eta ingurune fisiko eta sozialean, eta bestetik, nortasunaren eraikuntzan eta komunikazioaren eremuan.

Curriculumaren ikasten eta pentsatzen ikasteko oinarrizko kompetenziari erreparatzen badiogu Haur Hezkuntzaren xedea ikaskuntza funtzional eta adierazkorrak egiteko testuinguruak ziurtatzea, bai eta hurrei beraien jarduera erregulatzeko laguntza ematea ere; hau da, pixkanaka ikasten ikastek beharrezkoak dituzten prozedurak ematea. Kompetentzia honek laguntzen du poesiaren bidez eta dramatizazioaren bidez haurrak modu ludiko batean ikastea.

Lan honetan poesia eta dramatizazioa loturik egotea, betiere jolasa hizpide garrantzitsutzat hartuz, Hezkuntzako curriculumean agertzen diren zenbati helburu eta eduki garatzea eskatzen du. Batetik, nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren esparruan, eta bestetik, nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren esparruan.

Lehenengo eremuko helburuei erreparatzen badiegu hurrek poesiaren bitartez, hurrek euren bizi ingurunean egiten diren festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatzeko. Poesia euskal kulturaren dagoen tradizioa da, eta hurrek poesiaren bidez gauza asko ikasteko aukera badutela esan daiteke; hala nola, musikaltasuna, erritmoa, hizkuntza, etab. Jolasa uneoro gai garrantzitsutzat hartuz.

Poesia eta jolasaren bidez, hurrek, gozatzeko eta ingurukoekin harremanak izateko aukera dute. Bide honetan, hurrek jolaseko arauak ulertuz eta onartuz, ikasiko dute jolasean arauak errespetatzen (Heriz, 2016).

Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren esparruan poesia ozen irakurtzeak aukera ematen du hurrek ahozko hizkuntza erabiltzeko eta balioesteko norberaren portaera eta elkarbizitzako jarrerak erregulatzeko.

Dramatizazioari dagokionez, eta nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eremuari erreparatzen badiogu haurrak dramatizatzerako unean gorputza kontrolatzeko bidea urratu behar du, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan izan ditzakeen mugak eta ahalmenak deskubritzeko. Horrela, haurrak frustrazio txikiak onartuko ditu, sortzen zaizkion zailtasunak gainditzeko jarrera adieraziko du eta beste pertsonengandik, bai ikaskideengandik baita irakaslearengandik ere, laguntza bilatuko du.

Horregatik, garrantzitsua da jakitea komunikatzeko hitzak erabiltzeaz gain keinuak ere erabiltzen ditugula, eta hori baliabide hartuz, garrantzitsua izango da gorputza eta mugimenduak era bateko edo besteko pertsona, espazio, denbora eta objektuetara doitzea (Heriz, 2016).

Dramatizatzeke garrantzitsua da hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa egokia izatea, horregatik curriculumaren nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren esparruan, haurrak arte produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiarren, antzerkiaren, musikaren, eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko. Hori dela eta, garrantzitsua da hurrek dramatizazioko eta imitaziozko jolasetan, dantzetan eta gorputz adierazpena beharrezkoa den bestelako jolas-jardueretan parte hartzeko interesa izatea.

Haur poesian eta dramatizazioan hitzezko komunikazioaz gain gorputz espresioa ere erabiltzea garrantzitsua da, dramatizazioak ekintza hori indartzen laguntzen duelako. Horregatik garrantzitsua da gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin eta komunikatzeko asmoarekin, pertsonen, espazioen, denboraren eta objektuaren ezaugarrien arabera.

Laburbilduz esan daiteke aipatu ditugun gaitasun eta edukiak kontuan izanik, Curriculumak poesia eta dramatizazioa lantzeko eta bultzatzeko aukerak eskaintzen dituela. Azaldu dugun moduan, poesia eta dramatizazioa Haur Hezkuntzan lantzea onuragarria da haurrentzat, azken finean, literatur testu berriak ikusteko, ipuinez gain, eta ikasteko aukera dutelako eta dramatizazioaren bidez, ahozko komunikazioa lantzeko aukera dutelako. Gainera, poesia dramatizatzerako unean haurrentzat jolas berri bat da, eta jolasak haurrak gauzak beste modu batean ikasteko aukera eskaintzen die.

4. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan hau egiten hasterakoan bi helburu mota finkatu ditut. Lehenik eta behin, helburu pertsonalak eta bigarrenik, helburu pedagogikoak edota profesionalak.

Helburu pertsonalei dagokienez, gai hau aukeratzeko unean erronka handia ikusten nuen poesiaren inguruan, eta batez ere, haur poesiaren inguruan ezer gutxi bainekien. Horregatik, honen inguruan ikasteko aukera proposa ikusten bainuen haur poesiaren eta dramatizazioaren inguruko eskuhartzea egiteko.

Bigarren helburua, graduan 4 urteetan zehar ikasitako jakintza guztiak, baina batez ere, 4. mailako dramatizazio minorrean ikasitako guztia hurrei erakustea eta horrekin gozatzea, dramatizazioari esker gauza asko ikasi dezakeelako haurrak.

Helburu pedagogiko edota profesionalen kasuan, GrALaren prozesu osoan zehar Haur Hezkuntzan aplikagarria izan daitekeen proposamen didaktiko bat sortzea, horrek beregan dakarren guztiarekin, hau da, proposamen didaktiko baten diseinuan, planifikazioan eta ebaluazioan, hain zuzen ere.

Honenbestez, honako hauek izan dira lanarekin lotu nahi ditudan helburuak:

- Uneoro egindako lanaz gozatzea, ikastea eta haur poesiaz ez nekiena modu batean ala bestean ikastea.
- Poesia dramatizatzea eta ahozkoasuna lantzea.
- Ikasitakoa etorkizunean aplikatzeko desioa.
- HHko profesionalentzat baliagarria izatea.
- Proposamen didaktiko bat diseinatzea, praktikara eramatea eta ebaluatzea.

5. POESIA DRAMATIZATZEN: ANIMALIEN MUNDUAN

5.1. DESKRIBAPENA

Proposamen didaktiko honen sorreran hasiera batean Zurriola Ikastolan egindako praktikaldiak iraun bitartean, poesiaren eta dramatizazioaren inguruko 5 jarduera pentsatu eta aurrera eraman nituen 5 urteko haurrekin. Ikusita oso labur geratzen zela, beste eskola batean ariketak egiteko aukera 4 urteko umeekin beste bost jarduera pentsatu eta aurrera eramateko aukera izan nuen.

Poesiaren eta dramatizazioaren inguruan proposaturiko hamar ekintza hauek bi ikastola desberdinetan egiteko aukera izan dut; batetik, 4.mailako praktikak egindako ikastolan, eta bestetik, amak lan egiten duen ikastolan, San Ignazio ikastetxean. Bi ikastola hauek Donostian daude.

5.2. JARDUERAK AZALTZEN

Poesiaren eta dramatizazioaren inguruko proposamen didaktiko hau aurrera eramateko, lehenik eta behin Zurriola Ikastolan 5 urteko hurrekin astebetean irakasleak eta biok zer egingo genuen azaldu genien labur-labur. Horretarako, asteak zituen bost egun horietan poesia bat lantzeko eta hori dramatizatzeke aukera izango zutela esan genien. Hori egiteko, Gabonetan zehar poesia eta dramatizazioa uztartzeko 5 jarduera diseinatu eta irakasleari erakutsi nizekion. Behin jarduerak diseinatuta praktikara eraman nituen eta ondoren ebaluazio eta proposamenaren inguruko ondorio batzuk atera nituen (Ikus 3. eranskina).

Poesiaren eta dramatizazioaren inguruko jarduerak aurrera eramateko, *Begira Begira, tradizioaren leihotik* (2006) liburutik Anjel Lertxundiren *hara nora joan diren zazpi bat oilasko* poesia hautatu nuen. Gero, eranskinetan beste poesia batzuk jarriko ditut, eta GrALean zehar planteaturiko jarduerekin aurrera eraman daitezke edo poesia bakoitzaren gaiaren arabera beste mota batzuetako jarduerak ere sortu daitezke, betiere poesia eta dramatizazioa uztartuz.

Ikusita 5 jarduera bakarrik aurrera eramatea oso laburra zela, Donostiako San Ignazio ikastetxean beste 5 jarduera diseinatu eta bertan aurrera eramateko aukera izan nuen. Behin jarduerak diseinaturik zeudela praktikara eraman nituen eta horren ondoren ebaluazio eta ondorio batzuk atera nituen. San Ignazio ikastetxean egindako jarduerak 4 urteko hurrekin izan ziren.

Poesiaren eta dramatizazioaren inguruko jarduerak bukatuta zeudelarik ideia egokia iruditu zitzaidan bi ikastola ezberdinetan diseinaturiko ariketak bateratzea eta poesiaren eta dramatizazioaren inguruko proposamen didaktiko bat sortzea. Horrez gain, garrantzitsua da azaltzea jarduerak aurrera eramateko curriculumak dituen helburuak eta gaitasunak kontuan hartu direla.

Beraz, behin erabakita bi ikastoletan egindako ariketak elkartzea honelako proposamen didaktikoa atera zen:

1. Poesiaren ezaugarriak azaldu
2. Poesiako pertsonaiak asmatzen
3. Hautatutako poesia hurrei irakurri
4. Irakurritako poesiatik pertsonaiak atera eta hurrek pertsonaiak margotu
5. Haurrak poesiako protagonistak
6. Poesia dramatizatu beste ikaskideen aurrean
7. Poesia beste gelakoei dramatizatu.
8. Poesia dramatizatzeko antzeztokia prestatzen
9. Poesia antzeztokian dramatizatzen
10. Poesia gurasoei erakusten.

5.2.1. 1. Jarduera: Poesiaren ezaugarriak azaltzen

- **DESKRIBAPENA:** Proposatutako jarduera honi hasiera emateko, haurrak klasean zeudelarik eta irakaslearen laguntzarekin, poesiaren ezaugarriak zeintzuk ziren azaldu genien hurrei. Horretarako, poesia beste testu mota batzuekin alderatu genuen hurrei, argiago geratzeko poesiak zituen ezaugarriak zeintzuk ziren. Poesiaren ezaugarriak zeintzuk ziren jakiteko, poesia ipuin batekin edo errezeta batekin alderatu genuen.
- **ADINA:** 5 urte
- **LEKUA:** Ohiko gela
- **IRAUPENA:** Iraupenari dagokionez, ez genuen denbora limiterik jarri. Pentsatu genuenean bai irakasleak eta baita nik ere hurrek jadanik ezberdintasunak ulertu dituztela, poesiaren inguruko azalpena bukatutzat eman dugu ekintza.
- **TALDEKATZEA:** Talde osoa
- **MATERIALA:** Begira begira, Tradizioaren leihotik (2006) liburua.



- HELBURUAK: Genero eta estilo askotako obra batzuk entzutea.
- GAITASUNAK: Jarduera honen bitartez haurrek literaturaren adierazpen xumeak gerturatuko dizkie literatura-hezkuntzak, bizipen gozagarriak izateko, literatura-testuak entzun eta moldatuta.

5.2.2. 2. Jarduera: poesiako pertsonaiak asmatzen

- DESKRIBAPENA: Behin poesiak zituen ezaugarriak hurrei azaldu eta gero, eta poesia irakurtzen hasi baino lehen, hurrekin ahozketasuna lantzeko poesian agertzen ziren pertsonai batzuk asmakizunak erabiliz haurrek ze pertsonai zen asmatu beharko zuten. Horretarako, lehenengo asmakizun bidez pertsonaiak asmatu behar zituzten. Asmatzerakoan, asmatu zuten pertsonaia erakutsi egia zen edo ez ikusteko. Gero olerkia irakurri eta azkenik poesiako marrazkiak margotu.
- ADINA: 4 urte
- LEKUA: Ohiko gela
- IRAUPENA: Ariketa egiteko ez da iraupenik finkatu
- TALDEKATZEA: Talde osoa
- MATERIALA: Poesian zehar agertzen diren pertsonaiak
- HELBURUAK: Ahozko hizkuntza arian arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.
- GAITASUNAK: Ariketa honen bidez, haurrek prestutasunez, errespetuz, elkarlanean eta ekimenez hartzen dute parte inolako genero diskriminaziorik egin gabe.

5.2.3. 3. Jarduera: poesia irakurtzen

- DESKRIBAPENA: Behin poesiaren eta ipuinaren ezaugarriak desberdinak direla azaldu eta gero, *hara nora joan diren zazpi bat oilasko* poesia irakurri diegu hurrei. Behin irakurrita hurrei aukera eman zaie, nahi zuenak noski, poesia hori euren kabuz beste gelakideei irakurtzeko. Gero haurren memoria lantzeko poesiaren hasiera eman genuen eta haurrek jarraipena eman behar zioten.

- ADINA: 5 urte
- LEKUA: Poesia irakurtzeko, ohiko gela
- IRAUPENA: Haurrek poesia hori irakurtzeko eta modu batean ala bestean barneratzeko beharrezkoa zen denbora.
- MATERIALA: Ekintza hau egiteko, Begira begira, Tradizioaren leihotik liburua.
- HELBURUAK: Jarduera honekin haurrek garatzen dituzten helburuak honakoak dira, batetik, ahoz adierazitako testu errazak ulertzea; deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera-zaharrak, asmakizunak, etab., eta literatura testu errazak, tradizionalak eta garaikoak, entzutea, ulertzea eta erreztatzea.
- GAITASUNAK: Haurrek ekintza honekin lantzen duten gaitasuna da hurrei literaturaren adierazpen xumeak gerturatuko zaizkie, bizipen gozagarriak izan ditzaten, literatura-testu errazak ulertuz eta horiek moldatuz.

5.2.4. 4. Jarduera: pertsonaiak margotzen

- DEKRIBAPENA: Behin poesia bai haurrek baita irakasleek irakurrita, poesia hartatik ateratako pertsonaiak margotzeko unea. Horretarako, Gabonetan nik poesiatik pertsonaia nagusiak ateratzeko ekintza burutu nuen.
- ADINA: 5 urte
- LEKUA: Betiko gela
- IRAUPENA: Ez zegoen denbora zehatzik ekintza hau burutzeko. Haurrak asperten zirenean pertsonaiak margotzeari utzi zezaketen eta beste zerbait egiten jarri.
- TALDEKATZEA: Ez zegoen talde osoaren beharrik, nahi zuenak margotu zezakeen.
- MATERIALA: Begira begira, Tradizioaren leihotik liburutik ateratako pertsonaiak (azeria, oilaskoa, txoria, ehiztaria, baso erdiko zuloa, basoa, putzua, xixarea eta sasi arteko arantza)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

- **HELBURUAK:** Materialak probatzea eta ekoizpen plastikoak egitea askotariko materialak eta teknikak erabilita.
- **GAITASUNAK:** Jarduera honekin hurrek sormena erabiltzen dute, eurek nahi duten moduan margotzen dituztelako poesiatik ateratako pertsonaiak. Horrela, artea balioesteko eta arteaz gozatzeko trebetasunak eskuratzen dituzte.

5.2.5. 5. Jarduera: haurrak poesiako protagonistak

- **DESKRIBAPENA:** Poesiako leku eta pertsonaien mozorroak prestatu. Horretarako, material desberdinak erabili ziren; hala nola, kartulinak, plastikozko zakar poltsak, errotuladoreak, aurpegia margotzeko aproposak diren margoak, etab. Behin hori egindakoa poesia prestatzeari ekin genion.
- **ADINA:** 4 urte
- **LEKUA:** Ohiko gela
- **IRAUPENA:** Hurrek behar adina denbora
- **TALDEKATZEA:** Talde osoa
- **MATERIALA:** errotuladoreak, margoak, kartulina ilarak (hurrek behin elementua margotuta buruan zinta bat izango balitz bezala jarri genuelako). (Ikus 2. eranskina).
- **HELBURUAK:** Ahozko hizkuntzaren bidez adierazi eta hizkuntza adierazpenak egiteko interesa eta ekimena izatea.
- **GAITASUNAK:** Ekintza honen bidez hurrek modu osagarrian erabiltzen dituzte komunikaziorako beharrezkoak diren hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa, komunikazio egokiak eta eraginkorrak izan ditzaten.

5.2.6. 6. Jarduera: poesia dramatizatzen

- **DESKRIBAPENA:** Behin hurren laguntzaz poesiako pertsonaiak margotuak zeudela, orain poesia dramatizatzekeo unea iritsi da. Orduan, 7 boluntarioren laguntzarekin poesia gelako beste ikaskideei erakutsi eta dramatizatzekeo aukera izan dute. Gero, gainontzekoei dramatizatzekeo interesa pizten bazitzaie aukera



ematen genien poesia dramatizatu ez zutenek dramatizatzeko, betiere irakaslearen edo nire laguntzarekin.

- ADINA: 5 urte
- LEKUA: Ohiko gela
- IRAUPENA: Hurrek nahi zuten denbora zuten poesia dramatizatzeko txotxongiloen laguntzaz
- TALDEKATZEA: Nahiz eta talde osoaren aurrean egin, 7 partaideko boluntario taldeak egin zuten.
- MATERIALA: Txotxongiloak
- HELBURUAK: Arte produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia.
- GAITASUNAK: Jarduera honekin hurrek lantzen duten gaitasuna da norbera zein den ikusteko balio duela bakoitzak dituen abileziak eta ahuleziak zeintzuk diren jakiteko.

5.2.7. 7. Jarduera: poesia besteei dramatizatzen

- DESKRIBAPENA: Behin gure gelan poesia hori lantzerakoan, irakaslearekin hitz eginda ideia ona iruditu zitzaigun poesia beste gelakoei erakustea aukera polita izango baitzen besteek ikusteko. Gainera aukera eman genien beste gelako ikasleei poesia dramatizatu nahi bazuten dramatizatzea. Betiere une osoan nire laguntza zuten.
- ADINA: 5 urte
- LEKUA: Ohiko gela
- IRAUPENA: Hurrek behar adina denbora ekintza hau burutzeko. Gustura bazeuden errepikatzeko aukera, beraz ez zegoen denbora zehatzik
- TALDEKATZEA: Nahiz eta talde osoaren aurrean egin, 7 partaideko boluntario taldeak egin nituen.
- MATERIALA: Dramatizazioa burutzeko materiala txotxongiloak eta haurren ahotsa.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

- **HELBURUAK:** Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.
- **GAITASUNAK:** Jarduera honekin hurrek komunikaziorako beharrezkoak diren funtsezko konpetentzia ikasten dute, besteekin beharrezkoak diren interakzioak izateko ea besteekin hartu-emanak izateko.

5.2.8. 8. Jarduera: poesia dramatizatzeako antzeztokia prestatzen

- **DESKRIBAPENA:** Oraingoan poesia eta dramatizazioa politagoa izateko hurrek irakaslearen laguntzarekin antzeztokia prestatu zuten. Horretarako poesian zehar agertzen ziren elementu ezberdinak antzeztokian jartzen joan eszenatokia betetzeko; hala nola, basoa irudikatzeko zuhaitzak, kartulina urdinez egindako putzua, etab.
- **ADINA:** 4 urte
- **LEKUA:** Ohiko gela
- **IRAUPENA:** Ez genuen iraupen zehatzik ezarri
- **TALDEKATZEA:** Talde osoa
- **MATERIALA:** Antzeztokia prestatzeko beharrezkoak diren elementuak, hala nola; basoa.
- **HELBURUAK:** Ariketa honekin lantzen den helburua da haurrak proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta inguruneko arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea.
- **GAITASUNAK:** Hurrek ariketa honi esker talde lanean haritzen ikasten dute errespetuz, elkarlanean eta ekimenez. Horrela, gatazkak alde batera uzten dituzte, bakoitzaren iritziak adieraziz eta defendatuz, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatuz.

5.2.9. 9. Jarduera: poesia antzeztokian dramatizatzen

- **DESKRIBAPENA:** Behin antzeztokia poesian agertzen diren elementuez osatua dagoela, jadanik hurrek, boluntarioki, poesia

dramatizatzeko unea iritsi zen. Horretarako, haurrek preparatutako mozorroak erabili ziren; hala nola, maskarak, plastikozko zabor poltsekin egindako mozorroak, etab. Ikusita batzuk pertsonaiak ez zituztela, pertsonaiarik gabekoek poesia irakaslearen laguntzarekin errezitatu zuten. Orduan, batzuk poesia errezitatu eta besteek antzerkia egin zuten.

- ADINA: 4 urte
- LEKUA: Ohiko gela
- IRAUPENA: Haurrek behar adina denbora
- TALDEKATZEA: Talde osoa
- MATERIALA: Haurrek margotutako irudiak (Ikus 2.eranskina)
- HELBURUAK: Jarduera honekin lantzen den helburua da haurrak dramatizazio eta imitazio jolasetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolasetan modu aktiboan parte hartzea.
- GAITASUNAK: Ariketa honekin haurrek lantzen duten gaitasuna da haurrak jarduera motorraren bidez bere nortasun propioa eraikitzen duela, bere gorputza ezagutzen doala pixkanaka eta hura adierazpen-komunikazio moduan erabiltzen duela.

5.2.10. 10. Jarduera: poesia gurasoei erakusten

- DESKRIBAPENA: Azkeneko jarduera moduan, eta proiektuarekin ondo bukatzeko, irakaslearekin hitz egin nuen eta pentsatu genuen ideia egokia izango litzatekeela haurrek ikasitakoa gurasoei erakustea. Horretarako, gurasoentzako gonbidapenak prestatu genituen eta haur bakoitzak bere gurasoei gonbidapen hori eman zien.
- ADINA: 4 urte
- LEKUA: Antzeztokia dagoen gela, ohiko gela, alegia
- IRAUPENA: Ez zegoen denbora tarterik ezarrita.
- TALDEKATZEA: Talde osoa
- MATERIALA: Antzeztokiko elementuak, haurrek margotutako irudiak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

- **HELBURUAK:** Jarduera honekin haurrek zer emozio eta sentimendu dituzten ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
- **GAITASUNAK:** Ekintza honen bitartez haurrak diren bezala adierazteko aukera eskaintzen dio gorputz adierazpenak, eta horretarako keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen ditu. Azken finean, baliabide hauen bidez haurrak ideiak eta emozioak adierazten ditu eta egokitasunez interpretatzen eta balioesten ditu gainerako pertsonen adierazpenak.

5.3. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Haur Hezkuntzan, jakina den moduan, haurrek ikasteko duten modurik egokiena jolasen bidez da. Horregatik, poesia eta dramatizazioa jolas baten moduan lantzea izan da uneoro nire intentzioa, haurrek modu ludiko eta dibertigarri batean ikasteko aukera izan dezaten. Egia da hasiera batean urduri nengoela, baina, behin jarduerak martxan jarrita eta praktiketako irakaslearen laguntzarekin, haurrek eta nik jardun dugula ikusi dut.

Haur Hezkuntzan oso garrantzitsua da haurrekin ahozkoasuna lantzea. Hori izan da agian esku-hartze honen gabeziako bat, hau da, poesiaren ezaugarriak azaltzerako unean irakasleak eta biok bakarrik hitz egiten genuen, eta hurrei ez genien aukera handirik ematen adierazteko. Horretaz konturatuta, ondorengo jarduera guztietan ahozkoasuna lantzen saiatu ginen. Horregatik, gogora ekarri nahi ditut Nerea Gonzalez, Sandra Labrador eta Sandra Sanchoren (2013, 22.or) hitz hauek:

Ahozkoasuna lantzerakoan, ezin dugu espero haurren erantzun zehatza. Bakoitzak bere eran ulertzen ditu esanak eta guk pentsatutako erantzuna ez emateak ez du esan nahi haurren erantzun horrek ez duenik balio. Buruan dugun erantzunaren zain gelditzen bagara, ez diogu haurrari lagunduko aurrera egiten.

Jarduerak burutzerako prozesuan esan dezaket irakaslearen eskutik izandako laguntza oso garrantzitsua izan dela. Irakaslearen laguntzarik ez badago oso zaila da horrelako jarduerak aurrera ateratzea. Irakasleak uneoro laguntza eskaintzea eskertzekoa izan da planteatutako ekintzetan. Laguntza honek lasaitasuna eman dit jarduerak haurrei erakusteko momentuan. Gainera, irakasleak eskainitako gomendioak lagungarriak izan dira esku-hartzea egiterako unean.

Irakasleak Haur Hezkuntzan duen papera ezinbestekoa dela indartzeko Esther Prietoren (2008, 327.or) hitz hauek ekarri nahi ditut gogora:

Los maestros no sólo instruyen, sino que representan y comunican una filosofía educativa particular, que incluye pautas mediante las cuales los estudiantes serán evaluados. No sólo proporcionan retroalimentación referente al desempeño académico de los estudiantes, sino que tienen un efecto considerable en la motivación de los mismos para el aprendizaje. No sólo proporcionan aprobación o desaprobación específica ante el logro de los alumnos, sino que los maestros también comunican su aprobación o desaprobación general del niño como persona

Behin proposamen didaktikoa ezarrita, zenbait iradokizun pentsatu ditut proposamena hobetze aldera.

Alde horretatik esan dezaket sortutako 10 jarduerako proposamen didaktiko honek bere osotasunean gauza positibo zein negatibo batzuk badituela. Positiboei dagokienez, haurrek uneoro jolas moduan hartu dituztela jarduera guztiak, Haur Hezkuntzan jolasa baita euskarri nagusienetariko bat. Horregatik, Teresa Zapataren (2015, 3.or) hitz hauek ekarri nahi ditut gogora:

El juego tiene un papel vital en el desarrollo integral de los niños y niñas, por lo que es necesario que en la etapa de Educación Infantil sea el motor de toda actividad.

Huizinga (1987, in Zapato Morillo 2015, 9.or) honela definitzen du jolasa:

el juego es una actividad libre que se da en unos límites temporales y espaciales, que sigue unas reglas que son aceptadas libremente por el individuo que juega y que tiene un fin en sí misma, además, afirma que la actividad de jugar es anterior a cualquier cultura

Esku-hartze honi hurrek lantzea lortu dudan beste gauzetako bat hurrek beste literatur testu bat dagoela ikasi dute, hau da, liburuez gain beste literatura testu ugari daudela, eta horietako bat poesia dela. Miguel Bayon Peredak (1999) poesiaren inguruko Mario Benedettiren hitz hauek ekarri nahi ditut gogora:

por más que la industria editorial considere la poesía como "la gran Cenicienta" de la literatura, para él es "la verdadera alma del mundo".

Hobetu beharreko alderdiei dagekienez, esan dezaket poesiari dagokionez, poesia hasiera batetik moldatu edo aldatu egin behar nuela, haurrentzat poesia bere osotasunean buruz ikastea oso zaila delako. Horrez gain, poesia bakar batekin proposamen didaktiko bat egitea ez da aproposena. Poesia gehiago lantzea egokiagoa izango litzateke. Horretarako, eranskinetan beste poesia batzuk txertatu ditut (Ikus 4.eranskina).

5.4. GrAL-aren BALORAZIO PERTSONALA

Aurrean dugun Gradu Amaierako Lan honek nire bizitza akademikoan zehar denbora gehien eskatu didan lana izan da, baina horrek ez du esan nahi ez dudala gogoz eta ilusioz egin.

Hasieratik bukaerara bitarteko zuzenketa eta tutoretza guztiak baliagarriak izan zaizkit lana osatzen eta borobiltzen joateko, ahalik eta emaitzarik hoberena lortzeko. Egia da hasiera batean zalantza ugari nituela lana zeren inguruan egingo nuen, baina behin irakaslearekin hitz eginda eta bidea zein izango zen erabakita laguntza ugari eskaini zidan eta dit irakasleak lana egoki egiteko. Gainera, GrAL honekin hurrek ez ezik nik ere gauza asko ikasi ditut, hala nola nahiz eta poesia Haur Hezkuntzan ez asko landu modu dibertigarri batean lantzen bada, hurrek oso gustura parte hartzen dute eta ez zaie arrotza egiten poesia lantzea.

Edozein lan akademikotan bezala, lana egiteko orduan zailtasunak agertu dira, baina irakasleari esker, Edu Zelaietari esker, bidean sortzen ziren zalantzak argitzea lortu dut. Horrez gain, hasiera batetik lanaren entrega egunak finkatzea lagungarria izan da, nik neuk lanari eman behar nion denbora zenbatekoa izango zen jakiteko.

Azkenik, eskerrak eman nahiko nizkioke lan hau osatzen lagundu didaten guztiei, hala nola; praktikak egin bitartean izan nuen irakasleari eta Haur Hezkuntzako irakaslea ere baden amari. Bi pertsona hauen laguntzarik gabe ezin izango nuelako lan hau aurrera eraman. Halaber, lan hau aurrera eramateko lagundu didaten haur guztiei, beraiei esker kontu asko ikasteko aukera izan baitut.

6. ERREFERENTZIAK:

263/2015 Dekretu abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Abad, J. (2008). El Placer y el Displacer en el Juego Espontáneo Infantil. *Arteterapia - Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 3, 167-188.

Amonarriz Gorria, E., Erramun, O. eta Arruti, I. (2004). Ahozketasuna eremu ez kurrikularrean hizkuntza proiektuaren markoan. *Bat: Soziolinguistikaren aldizkaria*, 51. 137-158.

Aranguren, I., Galbete, V., Goyache, M.J eta Pascual, M.T. (1996). *Dramatizazioa. Aukerako Irakasgaiak. DBH*. Nafarroako Gobernua: Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua.

Argüelles, G. eta Zelaieta, E. (2015). *Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide*. Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria, 27, 87-105.

Arnal, T. (2017). *Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren ikasgaia*. 2017-18 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduako 3.mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

Bayon Pereda, M. (1999ko abuztuaren 27a). Mario Benedetti define la poesía como “el alma del mundo”. *El País*. Honako webgunetik berreskuratua: https://elpais.com/diario/1999/08/27/cultura/935704804_850215.html

Delgado Carrasco, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en Educación Infantil. *Revista Pedagogía Magna*, 15 (2), 382-392.

Euskaltzaindia. (2019). *Poesía Literatura terminoen hitzegia*. Honako webgunetik honetatik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&view=frontpage&layout=lth_detail&Itemid=474&search=poesia

- Etaia Infantil (2019). *La Importancia de la poesía infantil*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.etapainfantil.com/importancia-poesia-infantil>
- Galarron, A. (1992). Poesía Infantil. *Educación y Biblioteca*. 24, 35-42.
- Gonzalez, N., Labrador, S. eta Sancho, Sandra. (2013). Irakasleen estrategiak ahozketasuna sustatzeko Haur Hezkuntzako topagunean. Irakasle hasi berrien esku-hartzeen ikerketa. *Jakingarriak*, 72-73, 18-23.
- Gonzalez Alvarez, H. (2015). *La dramatización en Educación Infantil* (Doktorego Tesia). Universidad de Valladolid, Valladolid.
- Heriz, M. (2016). *Sekretuaren haitzuloan: Haur Poesiaren Fantasia Murgiltzeko Proposamena*. (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- HIK HASI. (2013). Jolasa oso kontu serioa da. *HIK HASI*. Web-gune honetatik berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20130711/jolasa-oso-kontu-serioa-da>
- Huerta, R. (2012ko martxoaren 21a). ¿De que les sirve la Poesía a los Poetas?. *El País*. Honako webgune honetatik berreskuratua: https://elpais.com/cultura/2012/03/21/actualidad/1332349438_566623.html
- Igerabide, J.K. (2007). Haurra eta ahozketasuna. *Hezkuntza*, 11(1), 225-242. Honako webgunetik berreskuratua: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/ahozko-hizkuntza>
- Kazabon, A. (2005). *Anpolai Gorriak*. Amorebieta-etxano: Ibaizabal
- Llamazares Prieto, M.T. eta Selfa Sastre, M. (2016). La dramatización de poemas infantiles: algunos ejemplos de trabajo para el aula de Educación Infantil y Primaria. *Alabe* 14.
- Lopez, A. Jerez, I eta Encabo, E. (2010a). *La Poesía en Educación Infantil*. Grupo de Investigación Didáctica de la lengua y la Literatura. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.

- Lopez, A. Jerez, I eta Encabo, E. (2010b). *Aproximacion a la Poesia Infantil*. Grupo de Investigacion Didactica de la lengua y la Literatura. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.
- Nuñez, L eta Navarro, M.R. (2007). Dramatización y Educación: aspectos teóricos. *Teoría de la educación*, 19, 225-252.
- Olaso, X. (2012). *Tximeletrak*. Iruñea: Pamiela.
- Perez Gutierrez, M. (2004). La dramatización como recurso clave en el proceso de enseñanza y adquisición de las lenguas. *Revista electrónica internacional*, 12, 70-80.
- Prieto Jimenez, E. (2008). El papel del profesorado en la actualidad. Su función social y docente. *Foro de Educación*, 10, 325-345.
- Ramirez Carmona, I. (2009). Didactica de la dramatización en educación infantil. *Innovacion y experiencias educativas*. 15. Honako webgunetik berreskuratua:
https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/.../ILDEFONSO_RAMIREZ_1.pdf
- Sigüenza, C. (2018ko martxoaren 2a). Elena Medel desvela en un libro “Todo lo que hay que saber de la poesía”. *El diario*. Honako webgunetik berreskuratua: https://www.eldiario.es/cultura/Elena-Medel-desvela-libro-poesia_0_745776267.html
- Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. (Doktorego Tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Valin, A. (2010) *Expresión Corporal: Teoría y Práctica*. Madrid: Esteban Sanz.
- Vizcarra, M.T. (2014). *Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Vizcarra, M.T., Alvarez, A., Aristizabal, P., Camino, I., Lasarte, G., Tresserras, A., Zelaieta, E eta Zuazagoitia, A. (2014). *Kubik: antzezlan bat baino gehiago... Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua.

Zapata Morillo, T. (2015). *El Juego en la Educación Infantil*. Universidad de Granada, Granada.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: JARDUEREN AZALPEN KOADROA

JARDU ERA-SEGIDA	PAUSOZ PAUSO	ELKARREKINTZA-MOTA ETA ROLAK	ESPERIENTZIA EREMUAK		EBALU AZIO-ADIERAZLEAK	MATERIA LAK	GUNEAK	DENBORA
			GAITASUNAK	EDUKIAK				
1. Jardu era: Poesiar en ezaugarriak azaltzen	Haurrei poesiaren ezaugarriak azaldu.	Haurrak adi irakaslearen azalpenera Irakasleak jarrera aktiboa	Hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko.	Poesiar en ezaugarriak ikastea	Poesiar en ezaugarriak zeintzuk diren ulertzen ditu	- <i>Begir a begir a; tradiziozko leihotik liburua</i>	Ohiko gela	10-20 minutu
2. Jardu era: Poesia ko pertsonaiak asmatzen	Poesia irakurri baino lehen poesian agertzen diren pertsonaiak asmatzeko asmakizunak bota haurrei	Haurrek jarrera aktiboa Irakasleak gidariaren papera	Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.	Asmaki zunen bidez poesiak o pertsonaiak identifikatzea	Asmaki zunean esandako pertsonaiak zeintzuk diren ulertzen ditu		Ohiko gela	15-20 minutu
3. Jardu era: Poesia irakurtzen	Poesia irakurri. Gero eurek irakurri edo errezitatu nahi badute irakurtzeko aukera eskaini.	Haurrek jarrera aktiboa poesia entzuteko Irakasleak gidari papera	Literatura-testu errazak, tradizionalak eta garaikoak, entzutea, ulertzea eta errezitatzea, plazera sentitzeko eta ikasteko.	Poesia gustura irakurtzea eta entzutea	Literatur testu errazak ulertzen ditu	- <i>Begir a begir a; tradizioaren leihotik liburua</i>	Ohiko gela	10-20 minutu



4. Jardue ra: Pertso naiak margot zen	Poesian zehar agertzen diren pertsonaiak margotu	Haurrek jarrera aktiboa	Arteko trebetasun eta teknika oinarrikoak erabiltzen hastea.	Pertsonaiak margotzea	Parte hartzen du pertsonaiak margotze erakundeetan	- Poesi atik ateratzen - Margotzea	Ohiko gela	Haurrek behar adina denbora
5. Jardue ra: Haurra k poesia ko protag onistak	Poesiako pertsonaien mozorroak egin	Haurrek jarrera aktiboa, pertsonaien mozorroa egiteko Irakasleak laguntzaile papera	Materialak probatzea eta ekoizpen plastikoak egitea askotariko materialak eta teknikak erabilita.	Mozorroak prestatzea	Mozorroak egiterakoan gustura hartzen du parte	- Margotzea - Zakar poltsak - Errotuladorak - Kartulak - Etab.	Ohiko gela	Haurrek behar adina denbora
6. Jardue ra: Poesia dramati zatzen	Txotxongiloekin poesia dramatizatzen	Haurrek jarrera aktiboa Irakasleak laguntzaile papera	Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea.	Dramatizatzen ondo pasatzea	Ondo pasatu du poesia gelakoekin dramatizatzen	- Pertsonekin txotxongiloak	Ohiko gela	Haurrek behar adina denbora
7. Jardue ra: Poesia besteei dramati zatzen	Txotxongiloekin poesia beste gelakoekin dramatizatzen	Haurrek uneoro jarrera aktiboa Irakasleak laguntzaile papera	Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea.	Besteei poesia dramatizatzen ondo pasatzea	Urduri zegoen poesia beste gelakoekin dramatizatzen	- Pertsonekin txotxongiloak	Ohiko gela	Ez dago denbora zehatzik
8. Jardue ra: Poesia dramati zatzeko antzezt okia prestat u	Poesia dramatizatzen antzeztokia prestatu	Haurrak eta irakasleak jarrera aktiboa antzeztokia prestatzen	Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta ingurune gaitasuneko arte-ekoizpenen gaitasunak erabiltzea.	Talde lanean aritzea	Proiektu kolektiboetan parte hartzen du	- Poesian zehar agertzen diren elementuak prestatzea	Ohiko gela	Antzeztokia prestatzeko behar adina denbora
9. Jardue ra: Poesia antzezt okian dramati zatzen	Behin antzeztokia prestatuta haurrak poesia euren mozorroekin dramatizatzen dute	Haurrek jarrera aktiboa Irakasleak laguntzaile papera	Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin edo komunikatzeko asmoarekin, pertsonen,	Gorputzarekin ondo adierazten du	Gorputz espresio egokia du	- Haurrek egindako mozorroak	Ohiko gela	Behar adina denbora



			espazioen, denboraren eta objektuen ezaugarrien arabera.					
10. Jardue ra: Poesia guraso ei erakuts i	Behin haurren artean poesia dramatizatu a egonda gurasoei gonbidape na k banatu eta gelara etorriko dira antzerki a ikustera	Haurrak eta irakasleak jarrera aktiboa	Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi- egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.	Informa zioa ulertzea buruz ikaste eta adierazt ea	Urduri egon da gurasoe i antzerki a erakust erako moment uan	- Guras oei egind ako gonbi dape nak	Ohiko gela	Ez dago denbora zehatzik

2. ERANSKINA: POESIAKO PERTSONAIEN BURUKOAK

3. ERANSKINA: EBALUAZIO TAULA

	Bai	Batzuetan	Gutxitan
Esku-hartzean gogotsu parte hartu dute?	X		
Denek hartu dute parte?		X	
Arreta jarri dute poesiaren inguruko azalpenetan?	X		
Jarduerak egiterakoan gustura sentitu dira?	X		
Behar izanez gero euren artean lagundu dira?	X		
Laguntza behar zutenean irakaslearen laguntza eskatu dute?	X		
Poesia dramatizatzerako unean gustura sentitu dira?	X		

4. ERANSKINA: POESIA ETA DRAMATIZAZIOA LANTZEKO BESTE POEMA BATZUK

1. POEMA: Kazabon, A. (2005). Anpolai gorriak. Amorebieta-etxano: Ibaizabal.

Euria zarran-zarran
kazkabarra kiski-kaska
berriz ere bete da
emozioen aska
haizeak firu-firu
trumoiak bur-bur
ni banoa etxera,
bihararte, agur.

2. POESIA: Olaso, X. (2012). *Tximeletrak*. Iruñea: Pamiela.

Amaren sabela haurraren etxea:
logela, sukaldea eta atea.
uztaila, abuztua eta iraila:
ondo itxita sarraila
Urria, azaroa eta abendua:
txikiagoa haurraren planeta,
estuagoa haurraren logela,
handiagoa amaren sabela.
Urtarrila eta otsaila:
haurra giltza bila.
Badoakigu otsaila,
badatorkigu martxoa:
-banoa, banoa!
Ama kuttuna,
ama maitea,

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

kox-kox-kox

amatxoooooooo!

irekidazu atea